Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO

Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
http://www.getxo.eus

Legez emandako eskurantzez baliaturik proposatu da hurrengo dekretua onestea.

En virtud de las atribuciones conferidas, se propone la aprobación del siguiente Decreto.

| **Dekretua** / Decreto: | **1972 / 2020** | **Erref.** / Ref.: |
|---|---|---|
| **Gaia** / Asunto: | **Criterios de uso y disfrute de las playas verano 2020** | |
| **Arloa** / Área: | ***INGURU GIROA /*** **MEDIO AMBIENTE** | |
| **Interesduna** / Interesado: | | |

Maiatzaren 23ko SND/440/2020 Aginduak, COVID-19ak eragindako osasun-krisia hobeto kudeatzeko hainbat agindu aldatzen dituenak, normaltasun berri baterako trantsizio-plana aplikatuz, udalei ahalmena ematen die 46.5 artikuluan sarreran eta edukieran mugak ezartzeko, bai eta hondartzetan egoteko denbora eta aparkalekuetarako sarbidea mugatzeko ere, osasun-segurtasuneko baldintzetan ahalik eta pertsona gehienek gozatu ahal izatea bermatzeko helburuarekin.

La Orden SND/440/2020, de 23 de mayo, por la que se modifican diversas órdenes para una mejor gestión de la crisis sanitaria ocasionada por el COVID-19 en aplicación del Plan para la transición hacia una nueva normalidad, faculta a los ayuntamientos en su artículo 46.5 para establecer limitaciones tanto de acceso como de aforo, así como también límites de tiempo de permanencia en las playas y de acceso a los aparcamientos, a fin de garantizar su disfrute por el mayor número de personas, en condiciones de seguridad sanitaria.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren osasun-irizpideak kontuan hartu dira, EAEko hondartzak eta bainatzeko guneak irekitzeko eta erabiltzeko SARS-Cov-2-k eragindako pandemia egoeran.
Eta herritarren osasuna zaintzeko funtsezko helburua betetzekotan, gure hareatzak arduraz erabili eta gozatzeko bete behar diren irizpideak ezarri dira.

Atendidos los criterios sanitarios del Departamento de Salud del Gobierno Vasco para la apertura y uso de las playas y zonas de baño de la CAV en situación de pandemia por SARS-Cov-2.
Y con el objetivo fundamental de salvaguardar la salud de la ciudadanía en general, se establecen los criterios que se deben cumplir para el uso y disfrute responsable de nuestros arenales

**XEDATZEN DUT**

**DISPONGO**

<u>**LEHENENGOA**.- Hondartzetako oinez-koentzako sarbidea</u>

Udalak hesiak eta seinaleak jarriko ditu Areetako, Ereagako, Arrigunagako eta Azkorri/Gorrondatxeko hondartzetarako oinezkoentzako sarbideetan, bideetako sarrerak eta pasabideen norabideak arautzeko, pilaketak saihesteko eta pertsonak errazago pasatzeko. Seinaleek hareatzetara sartzeko eta irteteko bideak

<u>**PRIMERO**.- Acceso peatonal a las playas</u>

Se colocarán vallas y señalética en los accesos peatonales a las playas de Las Arenas, Ereaga, Arrigunaga y Azkorri/Gorrondatxe, para regular las entradas y las direcciones de paso en los caminos con el objetivo de evitar aglomeraciones y facilitar el paso de las personas. Las señales indicarán las vías de entrada y salida a los arenales.



Cod. Validacion: GET/DEK/2020/1972 AJZ9hmxnLV

Sinatua: Arantza Cabeza Lopez (INGURU GIRO ADMINISTRATIBO ARLOAREN Z.L.G.M.T/T.S.L.D DEL ÁREA ADMINISTRATIVA DE MEDIO AMBIENTE)
Firmado: Joseba Arregi Martinez (Ingurumeneko Hiri Zerbitzu eta Ingurumen Kalitate Zerbitzuko Zinegotzi Arduraduna/Concejal de Servicios Urbanos Ambientales y Calidad Ambiental)
**Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/05/29 Fecha: 29/05/2020**

adieraziko dituzte.

**BIGARRENA**.- Ibilgailuz hondartzetara hurbiltzea

Ereagako hondartzan, ibilgailuen sarbidea Punta Begoñako biribilgunean itxiko da, ostiraletik igandera, 11:30etik 13:30era eta 15:00etatik 20:00etara.
Baimendutako autoak besterik ezin izango dira pasatu: egoiliarrak, hoteletako bezeroak, zerbitzuak…
Era berean, oinezkoentzako espazioa zabaltzeko, Punta Begoñako eta Igeretxe/ Txomintxuko biribilguneen arteko itzulerako erreia moztuko da trafikorako, eta Ereagako jaitsieratik izango du irteera.

**HIRUGARRENA**.- Hondartzak erabiltzeko irizpideak

- Ez da onartuko harean kirola egitea (palak, futbola, boleibola...), osasun-agintariek ezarritako segurtasun-distantzia bermatu ahal izateko.
- Hiru ordu baino gehiago ez egotea gomendatzen da, ahalik eta pertsona gehienek goza ahal dezan.
- Komeni da eguzkitakorik eta aulkirik ez eramatea.
- Kasu egin BFAren eta udalaren artean adostutako gomendioei.
- Taldeek gehienez 15 pertsonakoak izan behar dute. Bizikidetza-unitate berekoak ez diren taldeetako pertsonek maskara eraman behar dute ipinita edo segurtasun-distantzia mantendu behar dute.
- Bai bainua hartzen dutenek bai paseoan dabiltzanek osasun-agintariek ezarritako babes pertsonaleko (higienea eta maskarak) eta distantzia fisikoko (bi metro) arauak errespetatu behar dituzte.
- Bertaratzeko aurreikuspenak kontuan hartuta, oinez, bizikletaz, patinetez eta abarrez bertaratzea gomendatzen da, ibilgailu pribatua erabili gabe.

**SEGUNDO**.- Acceso rodado a las playas

En la Playa de Ereaga, de viernes a domingo, se cerrará el acceso rodado desde la rotonda de Punta Begoña de 11:30 a 13:30 y de 15:00 a 20:00 horas.
Se exceptúa de este cierre, los vehículos autorizados: reparto, residentes, clientela de hoteles y establecimientos hosteleros.
Se cortará al tráfico el carril de retorno, entre las rotondas de Punta Begoña y de Igeretxe/Txomintxu, para ampliar el espacio a disposición de las personas viandantes, que tendrá salida por Bajada de Ereaga.

**TERCERO**.- Criterios de uso de las playas

- No se permitirá la práctica del deporte (palas, fútbol, voleibol...) en la arena, para poder garantizar la distancia de seguridad marcada por las autoridades sanitarias.
- Se recomienda no permanecer más de tres horas, para que pueda disfrutar el mayor número de personas posible.
- Se recomienda no portar sombrillas y sillas.
- Cumplir las recomendaciones acordadas entre la DFB y ayuntamiento.
- Los grupos deben ser de 15 personas como máximo. Las personas de los grupos que no pertenezcan a la misma unidad convivencial deben portar mascarillas o mantener la distancia de seguridad.
- Las y los bañistas, así como también paseantes, deberán respetar las normas de protección personal (higiene y mascarillas) y distancia física (dos metros), establecidas por las autoridades sanitarias.
- Dadas las previsiones de asistencia se recomienda acceder andando, en bicicleta, patinete, etc. evitando usar el vehículo privado.



Cod. Validacion: GET/DEK/2020/1972 AJZ9hmxnLV

Getxo
Sinatua: Firmado: Arantza Cabeza Lopez (INGURU GIRO ADMINISTRATIBO ARLOAREN Z.L.G.M.T/T.S.L.D DEL ÁREA ADMINISTRATIVA DE MEDIO AMBIENTE)
Joseba Arregi Martinez (Ingurumeneko Hiri Zerbitzu eta Ingurumen Kalitate Zerbitzuko Zinegotzi Arduraduna/Concejal de Servicios Urbanos Ambientales y Calidad Ambiental)
Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/05/29 Fecha: 29/05/2020

**LAUGARRENA.-** Hondartzak ixtea, bertara sartzea saihesteko.

Osasun publikoa zaintzeko funtsezko helburuarekin, herritarren osasunerako arriskua minimizatuz, kontrolatu behar da hondartzetako edukierak baimendutako gehienekoa ez gainditzea. Hori dela eta, uneren batean ikusten bada segurtasuneko gehieneko edukiera gainditu daitekeela, Udaltzaingoak hondartzarako sarbidea itxiko du, aldez aurretik Ingurumen Hiri Zerbitzuetako eta Ingurumen Kalitateko zinegotziaren edo Herritarren Segurtasuneko zinegotziaren adostasuna jaso ondoren.

**BOSGARRENA.-** Neurri horiek guztiak ezabatu, handitu edo aldatu ahal izango dira ikusten diren egoeren, lortutako emaitzen eta osasun-agintariek ezartzen dituztenen arabera, bai eta gure hondartzetara joaten diren ahalik eta pertsona gehienen osasuna eta gozamena zaintzeko beste edozein neurri hartu ere.

**SEIGARRENA.-** Neurri horiek maiatzaren 29an jarriko dira indarrean.

**CUARTO.-** Proceder al cierre de las playas para evitar el acceso a las mismas.

Con el objetivo fundamental de preservar la salud pública, minimizando el riesgo para la salud de la población, se debe controlar que el aforo de las playas no supere el máximo permitido. De ahí que, si en algún momento se detecta que el aforo máximo de seguridad puede ser superado, la Policía Local, previa conformidad del Concejal de Servicios Urbanos Ambientales y Calidad Ambiental o de la Concejala de Seguridad Ciudadana, cerrará el acceso a la playa.

**QUINTO.-** Todas éstas medidas se podrán eliminar, aumentar o modificar en función de las situaciones que se observen, de los resultados obtenidos y de las que establezcan las autoridades sanitarias, así como adoptar cualquier otra tendente a preservar la salud y disfrute del mayor número de personas que acudan a nuestras playas.

**SEXTO.-** La entrada en vigor de estas medidas tendrá lugar el día 29 de mayo.

Agiri honek eskuz idatzitako sinadurarik ez izenperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udalaren web-orrialdetik (http://www.getxo.eus/ administrazio elektronikoko bulegoa) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalean, ezkerraldean ageri den egiaztapen-kode segurua erabiliz

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal ( http://www.getxo.eus/ Oficina de Administración Electrónica) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.

Cod. Validacion: GET/DEK/2020/1972 AJZ9hmxnLV

Getxo

Sinatua: Arantza Cabeza Lopez (INGURU GIRO ADMINISTRATIBO ARLOAREN Z.L.G.M.T/T.S.L.D DEL ÁREA ADMINISTRATIVA DE MEDIO AMBIENTE)
Firmado: Joseba Arregi Martinez (Ingurumeneko Hiri Zerbitzu eta Ingurumen Kalitate Zerbitzuko Zinegotzi Arduraduna/Concejal de Servicios Urbanos Ambientales y Calidad Ambiental)
**Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/05/29 Fecha: 29/05/2020**